



# NAFARROAKO MENDIETAN BARNA

G. Azkarate



Kaixo gabon! osteguna da Azaroaren bata, dei bat espero nuen eta telefonoaren tirrina entzuten dutenean badakit nortzuk diran, zitaten gara Donostia'ko Barandiaran tabernan eta han zeuden nik espero nituan kideak, txikito bat hartzen.

Hurrengo egunean mendira joango gara elkarrekin, eta txikito batzuek hartuz gero afaltzera egiten dugu, biharko goizeko 6'tan geratu gara Barandiaranen bertan.

Gure asmoa? ba, Elizondo'n hasi eta Orreaga'ra joatea.

Hori egiteko ginen: Roman Agirrezabal, Luis M.<sup>a</sup> Alberdi, Iñaki Etxaniz eta ni, Giller-mo Azkarate, laurok Osintxu'koak.

Donostiako kaleak oso atsegingarriak zeuden bainan nola oso goiz jaiki behar ginen laister joaten gara ohera gau giroari agur eginda.

*Azaroak 2:* esandako bezala 6'tan izentatutako lekuen geunden eta bi kotxetan hasten gara Elizondoruntz.

Nahiko giro ona dago, hego haizea laino beltzekin baina oraindano ez du egiten euririk.

Elizondo'ra ailegatu eta berehalaxe, ogia erosten dugu eta animoso hasten diogu bideari, goizeko 7½ tan.

Hau hasten da udaletxearen aurrean Otsondo'ra doan bidearen ezkerretan elizaren nahiko gertu. Tramu hau egina nuen eta zalantzarik gabe goaz.

Lehenago hasera hontan baserri batzuek badira, ez asko, eta pista dute, gu goazena, nahiko ona da, eta zelai, pago eta gaztaina, arizti eta pinu batzuen arten doa.

Ordu t'erdira gutxi gora-behera gogor igotzen du pista eta haserako 200 metro-tatik ia 1.000'ra joaten gara.

Euri ttantta batzuek hasten dira eta laino beltz hodeitsuak ikusten dira ez hain urrutian, gertuegi noski.

Ezkaldo mendia utzi dugu eskubitan eta Peña de Alba ikusten dugu ezkerretan, eta pista jarraitzen du, baina ez hain apaina, ez dago zuhaitzik gertuan eta gure eskubian borda batzuek eta oihan itxia ikusten dugu.

Aurrera jarraituz bidean bertan borda batekin topo egiten dugu; bi gizon zeuden, zaharrenarekin hitz egiten dugu, bideko esplikazio asko ematen digu, guretako, bizkaieraz hitz egiten dugunontzako, nahiko euskera ulergaitza da gure lagunarena baino politto konpontzen gara.


Pista bukatzen da eta aurrera jarraituz, pagadi zoragarri bat pasatuz gero, borda batean hiru pertsona hamarretakoa egiten daude, ogia, urdaia eta ardoa. Zertxobai hitz egiten dugu hauekin ere eta denbora askorako sartzten gara pagadi baten, bideak klaru ez dauden pagadi baten.

Hamarrak alde da, eta pagadian lehenengo geratuta, zertxobait jaten dugu, asko ez, iadanik euria nahiko nabaria da eta ez digu utziko, gure lagun maitalea izango dugu egun guztian.

Beti pagadiaren barruan Urkiaga'ko lepoaren aldapari ekitzen diogu eta laino tartean sakabanatzen gara, Iñaki eta Luis M.<sup>a</sup> bidetik joaten dira eta Roman eta ni zuzenean goiko laugaraino.

Hari jarraituz eskubiruntz laister aurkitzen ditugu trikuharri eta sutarri bana, baita ere ehiztarien txosna ugari ere eta noiz behinka tiro bat entzuten da, iadanik euria gogor egiten du eta txamarrak jasten ditugu, eta laurok berriro elkartu gara.

Harri handi batzuek pasatzerakoan 11½ ak aldean erortzen naiz, uste nuen sudurra



puzkatuta nuela baina ez, belaunean ere ba dut kolpe eder bat, bainan aurrera joateko moduan nago eta jarraitzen dugu, brujula eta mapa erabiliaz maiz ez bai dakigu biderik, laino eta euri arte hontan.

Udazkena nabari da pagoen ostu eta orbel okreka koloreetan, gure ezkerrera noiz-behinka ikusten ditugu herrixka edo horrelakoren batzuk lainoak uzten duenean.

Txosna ugari dago eta ehiztariak gure bidea kartutxo azalez zikintzen dute tartekamarteka, ez dira oso garbiak itxuraz, dena dela laurok ados gaude, ez dugu ongi ikusten hilketa eta kutsadura hau. Beste alde bunker mordo bat dago gure bidean makis denboran eginak seguru asko, denak utzita daude aspaldi danik.

Lehenengoz ibili gara Hego-Ekialde gisan, orain Ekialdera goaz garbi-garbi rasoen tartean batipat eta garo tartean.

Hamabiak aldera borda batean, kea ikusten dugu eta Iñaki eta Luis M.<sup>o</sup> joaten dira, Eugi'ko ehiztari batzuek dira, euskeraz dakitenak ongi goazela esaten diete eta jarraituz ordu bata aldean geratzen gara aterpe batean, hotz haundia soinean dugula, bazkaltzen dugu, ordurako zeharo blai eginak geunden.

Zerbait jan, arropak berriak jantzi, lehorxamarrak, zeren ez bai zeuden zeharo lehorrak eta aurrera jarraitzen dugu pagadi baten barrena.

Eugi'tik Alduides'era doan bidea pasatuz Adi mendiruntz jotzen dugu pista bat hartuz.

Euriz eta lainoz josita dago paisaia, eta sarritan begiratzen diogu brujulari, beharko.

Nabari da gizonaren eskua paraje haue-tan pista, bunkerrak (hemen ere badaude) abetoa landatuta dagoen ohianak eta rasoe-tan ere bai, pagoz biluztuta dago paisaia, oso polita bestalde.

Adi eskubian uzten dugu, euria eta lainoa ditugula kideztat eta Sorogain'go barrankoa eta lepoa ditugu aurrean, langa bat pasatuz gero. Kantauriko itxaso baina bustiango gaude, den dena bustita dugu, eta jaizte azkar batez gero hartzen dugu Gereundain'era (Viscarret) doan pista bat, lokatza artean goaz orain plixti-plaxta, laister aurkitzen dugu etxe bat eta gure suertea! taberna bat dago.

Han arropa bustiak kentzen ditugu eta beheko suaren aurrean urrutiratzen dugu gure hotza, sua eta ardoarekin eta baita ere lehortzen ditugu apur bat soineko eta motxilako jantziak.

Ezin izan dugu Orreaga'ra iritsi Euskal Herriko mendietako euriak ez digu utzi gure asmoa betetzen, ordu ta erdira zegoen gure helburua.

Hemendik aurrera egin genuena? ba Antonio tabernako semearekin joan ginen, lo egin genuen ostatuan, eta hurrengo egunean ahal izan genuen moduan joan ginen etxera.

